




Magnitudeekin lan egiten dugunean, denborarekin izan ezik, **sistema hamartarra** erabiltzen dugu. Adibidez:

Metroa 10 aldiz handiagoa da dezimetroa baino, hau da, **metroak 10 dezimetro** ditu. **Dezimetroak 10 zentimetro** ditu eta **zentimetroak 10 milimetro** ditu.

Hori horrela, magnitude **batetik bestera pasatzeko** hamarrekoko saltoak ematen ditugu. BEGIRA:



Handiagoa den batetik bestera pasatzeko: 2 metro zenbat zentimetro?

- 1) Zenbatu **zenbat salto** dauden.

2) **Salto bakoitzetik bider 10** egin behar da.

Ad: Metrotik zentimetrora 2 salto daude

2 salto daudenez= BIDER 100
 $2 \times 100 = 200$ orduan $2m = 200cm$

Kopurua zenbaki hamartarra baldin bada (koma duena), salto bakoitzetik koma toki bat eskumara mugituko dugu: $2,53m = 253\text{ cm}$

Txikiagoa den batetik bestera pasatzeko: 3500 milimetro zenbat metro?

- 1) Zenbatu **zenbat salto** dauden.

2) **Salto bakoitzetik zati 10** egin behar da.

Ad: milimetrotik metrora 3 salto daude


3 salto daudenez= ZATI 1000
 $3500 : 1000 = 3,5$ orduan $3500mm = 3,5m$

Zatiketa hori egiteko modu azkarrena: **salto bakoitzetik koma toki bat ezkerretara** eramatea da.



Orain zeuk: Pasatu magnitude batetik bestera. Kontuz komarekin!

Koma hau erabili behar duzu: 3,5 HAUEK EZ: 3'5 / 3.5



- $3\text{m} =$ cm
- $40\text{dm} =$ m
- $5\text{m} =$ mm
- $17\text{dm} =$ m
- $4,5\text{m} =$ dm
- $60\text{dm} =$ m
- $12\text{m} =$ cm
- $300\text{cm} =$ m
- $1,5\text{m} =$ cm
- $88\text{cm} =$ m
- $7\text{m} =$ cm
- $2000\text{cm} =$ m
- $2\text{m} =$ mm
- $3000\text{mm} =$ m
- $1,54\text{m} =$ dm
- $120\text{mm} =$ m
- $2,5\text{m} =$ mm
- $1500\text{mm} =$ m